

EDITH STEIN XX. MENDEKO FILOSOFIAN

Edith Stein aldaketa kultural eta filosofiko sakona gertatu zen garaian bizi izan zen. Alemaniako Breslau (gaur egun Polonia) hirian jaioa XIX. mendeko amaieran -1891. urtean hain zuzen ere-, E. Stein-en garaiko urteetan filosofiaren alorrean izan ziren joerak ikustea dut helburu ondoko lerroetan.

Lehenbizi esan dezadan XIX. mendearen amaieran borondatearen eta bizitzaren ikasketa puri-purian ipintzen dela, hala arte eta literaturan nola filosofian berean ere. Soren Kierkegaard-en figurak mende horren lehen erdialdean eta batez ere Friedrich Nietzsche-ren bitalismo nihilistak ihardokitzen diete pentsamendu razionalistaren edozein motari, kontzeptu eta balore sistema dogmatiko guztiei eta era berean kolektibismo sozial, politiko eta ekonomikoaren edozein formari. Mende berri baten ateetan gaude, ia-ia atalasean, eta iriste hori dela-eta, mundu alternatiboak aurkitzeko aukera aurkezten zaio gizarte-ari. Zentzu honetantxe kokatu behar dugu Nietzscheren filosofia mende amaieran, heltzear dagoen mundu berriari egiten dion deia izanik, filosofo alemaniarrak desiratzen zuen munduari kontrajarriaz kritikatzeko, gorrotatzeko, bortizki erasotzeko eta hiltzeko uzten dion mundua.

Topatzeko dugun filosofiak hasiera-hasieratik dauka helburu argia: bizitzaren alde egin, berenez bitalak diren baloreak gorrestea, bizi izatearen baloreak ospatzea, hau da, azken buruan, "ahal izatearen borondatea". Hori bai, gorreste bitalista hori